U_10

# Uraren bidaia

HH. 3-6 urte

SAIOAK: Aurretik 2-3 / Ekoetxea 1 / Ondoren 2-3



| IKASGAIA | IKASGAI ERLAZIONATUAK | GAI EKOSOZIALAK | INGURUMEN-POLITIKAK |
|---|---|---|---|
| Ingurunea ezagutzea eta esploratzea | Harmonian hazten<br>Komunikazioa eta errealitatearen adierazpena | Ekodependentzia<br>Biosferaren funtzionamendua<br>Aldaketa ekosozialeko eragileak | Ura<br>Hondakinak<br>Biodibertsitatea<br>Ohitura jasangarriak<br>Aldaketa klimatikoa |




## Ikas egoeraren markoa

**TESTUINGURUA.** Urdaibai urarekin lotura zuzena duen babestutako espazio bat da. Urak bizitza sustatzen du, osasunean eta ingurugiroan eragina du. Ura oinarrizko elementua da.

### Abiapuntua

*Zergatik da garrantzitsua ura? Zertarako behar dugu? Nola zaindu dezakegu?*

**AZKEN EKOIZPEN EDO PRODUKTUA.** Ikas esperientzian zehar egindako ekintza ezberdinei esker ikasleak naturatik hurbilago egongo dira eta hau zaintzearen garrantziaz ohartaraziko dira.



## HELBURU KONPETENTZIALAK

- Oinarrizko jakintzak eskuratzea, Urdaibaiko ingurune naturaletan bizitako esperientzia esanguratsuen bidez, ikasleen pentsatzeko eta jarduteko modua aldatzeko jasangarritasun irizpideen arabera.
- Zentzumenen bitartez uraren ezaugarriak ezagutzea.
- Biodibertsitatea zer den jakitea, bere garrantziaren zergatia ulertzeko.
- Ibai eta itsasoaren arteko desberdintasunak ulertzea.
- Uraren zikloa zer den ikastea, ura etengabe aldatzen den elementu bat dela jakiteko.
- Ikasleen garapen kognitiboa bultzatzea, kontzentrazioarekin, sormenarekin eta hizkuntzarekin lotutako alderdietan.
- Naturak ematen dituen onurak ezagutzea eta horiek kontserbatzeko beharra ulertzea errespetuzko jarrerak garatzeko.

# Uraren bidaia

HH. 3-6 urte

SAIOAK: Aurretik 2-3 / Ekoetxea 1 / Ondoren 2-3

## Curriculumaren zehaztapenak

### ARLOA, DIZIPLINA EDO ESPARRUA (DAGOKION IKASGAIA)

| FUNTZ. KONP | KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK | EBALUAZIO IRIZPIDEAK | OINARRIZKO JAKINTZAK |
|---|---|---|---|
| a) Hizkuntza -komunikaziorako konpetentzia,<br><br>b) Konpetentzia eleaniztuna,<br><br>c) Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniaritzarako konpetentzia,<br><br>d) Konpetentzia digitala,<br><br>e) Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa,<br><br>f) Herritartasunerako konpetentzia,<br><br>g) Ekintzailetza -konpetentzia,<br><br>h) Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia. | **1. Gorputzaren ezagutzan eta kontrola garatzen eta hainbat estrategia eskuratzen joatea, haien ekintzak inguruko errealitatera era seguruan moldatuz norberaren irudi egokia eraikitzeko.** | 1.4. Ekosistemetan (ikasteko espazioetan) eta jolas ez-estereotipatu zuzenduen eta espontaneoen testuinguruetan parte hartzea bere aukera pertsonaletara egokituz. | **A. Gorputza eta gorputzaren kontrol progresiboa**<br>- Zentzumenak eta zentzumenen funtzioak. Gorputza eta ingurunea.<br>- Jolasa ekintza atsegingarri eta ikaskuntza iturri gisa. Jolasaren arauak. |
| | **3. Eredu, arau eta ohiturak bereganatzea, aukera propioetan konfiantza eta lorpen sentimenduak garatuz, ekologiarekiko eta gizartearekiko arduratsua den bizimodu osasuntsua bultzatzeko.** | 3.1. Norberaren eta ingurunearen zaintzarekin lotutako jarduerak egitea errespetuzko jarrerarekin, konfiantza eta iniziatiba adieraziz. | **C. Norberaren zaintzarako osasuntsuak diren eta naturarene-rako mesedegarriak diren bizitza ohiturak**<br>- Elikadurarekin, higienearekin, deskantsuarekin, norberaren eta ingurunearen zaintzarekin lotutako ohitura eta praktika jasangarriak, ekologiarekiko eta gizartearekiko arduratsuak direnak. |
| | **2. Metodo zientifikoaren prozedurak eta pentsamendu konputazionalaren trebetasunak garatzea pixkanaka, objektuak behatzeko eta manipulatzeko prozesuen bidez, ingurunea interpretatzen hasteko eta planteatzen diren egoerei eta erronkei sormenez erantzuteko.** | 2.3. Hainbat elementu edo materialen portaeraren inguruan hipotesiak planteatzea eta eskuztatuz eta haiengan ekinez egiaztatzea. | **A. Gorputz-elkarrizketa ingurunearekin. Objektuak, materialak eta espazioak sormenez esploratzea**<br>- Objektuen eta materialen ezaugarriak.<br>- Ordena-, korrespondentzia-, sailkapen- eta konparazio-erla-zioak.<br>**C. Ingurune fisikoan eta naturalean ikertzea. Zaintza, balioespe-na eta errespetua**<br>- Naturaren elementuak (ura, lurra, airea) Ezaugarriak eta portaera (pisua, edukiera, bolumena, nahasketak edo ontzi-aldaketak). |



# Uraren bidaia



**HH. 3-6 urte** | **SAIOAK: Aurretik 2-3 / Ekoetxea 1 / Ondoren 2-3**

## ARLOA, DIZIPLINA EDO ESPARRUA (DAGOKION IKASGAIA)

| FUNTZ. KONP | KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK | EBALUAZIO IRIZPIDEAK | OINARRIZKO JAKINTZAK |
|---|---|---|---|
| a) Hizkuntza -komunikaziorako konpetentzia,<br><br>b) Konpetentzia eleaniztuna,<br><br>c) Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniaritzarako konpetentzia,<br><br>d) Konpetentzia digitala,<br><br>e) Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa,<br><br>f) Herritartasunerako konpetentzia,<br><br>g) Ekintzailetza -konpetentzia,<br><br>h) Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia.<br><br> | **3. Naturaren elementuak eta fenomenoak ezagutzea, eta naturan eragina duten ohiturekiko interesa agertzea, pertsonen bizitzan ingurunea modu iraunkorrean erabiltzeak, zaintzeak eta kontserbatzeak duen garrantzia jabetzeko.**<br><br> | 3.1. Natura-ingurunea errespetatzea eta zaintzeko jarrera izatea eta gizakien ekintza batzuek bertan dituzten ondorio positibo eta negatiboak identifikatzea.<br><br>3.2. Izaki bizidunek eta bizigabeek dituzten ezaugarri komunak eta ezberdinak identifikatzea.<br><br>3.3. Natura-ingurunearen eta gizarte-ingurunearen arteko loturak egitea naturako hainbat fenomenoren behaketatik aurrera. | **B. Esperimentazioa ingurunean. Jakin-mina, pentsamendu zientifikoa, arrazoimen logikoa eta sormena**<br>- Ingurunea ikertzeko jarraibideak: interesa, errespetua, jakin-mina, harridura, galderak egitea eta jakiteko nahia.<br>**C. Ingurune fisikoan eta naturalean ikertzea. Zaintza, balioespena eta errespetua**<br>- Pertsonen ekintzek ingurune fisikoan eta natura- eta kultura-ondarean duten eragina. Klima-aldaketa.<br>- Fenomeno naturalak: identifikazioa eta pertsonen bizitzan dituzten ondorioak.<br>- Natura-ingurunea errespetatzea eta babestea.<br>- Enpatia, animalien zaintza eta babesa. Beren eskubideak errespetatzea. |
| | **1. Eguneroko egoeretan komunikazio-errepertorioaren eta esplorazioaren bidez interakzioak izateko interesa adieraztea beharrak eta asmoak adierazteko eta inguruneko eskakizunei erantzuteko.** | 1.1. Era aktiboan, espontaneoan eta errespetuzkoan bakoitzaren ezberdintasunekin gero eta zailagoak izango diren hainbat komunikazio-egoeratan parte hartzea. Horretarako lengoaia eta hizkuntza ezberdinen adierazteko aukerak ikertzea eta komunikazio-errepertorioa proposamenetara, hizketakideetara eta testuingurura egokitzea. | **A. Komunikazio-asmoa eta komunikazio interakzioa**<br>- Komunikazio-errepertorioa eta hitzik gabeko komunikazioko elementuak.<br>**B. Hizkuntzak eta beren hiztunaks**<br>- Atzerriko hizkuntzara hurbiltzea. Oinarrizko komunikazio praktikorako elementuak. |
| | **2. Mezuak eta adierazpenak interpretatzea norberaren ezagutzetan eta baliabideetan oinarrituz ingurunearen eskakizunei erantzuteko eta ikaskuntza berriak eraikitzeko.** | 2.1. Arte-adierazpenen bidez edo formatu digitalean igorritako mezuak interpretatzea igorlearen asmoa zein den identifikatuz eta jakin-minezko eta ardurazko jarrerarekin. | **C. Ahozko hitzezko komunikazioa. Ulermena - adierazpena - elkarrizketa**<br>- Ahozko hizkuntza eguneroko egoeretan: elkarrizketak, gizarte-interakzioko jolasak eta bizipenak adierazteko jolasak.<br>**I. Teknologia digitalak**<br>- Irakurmena eta irudien eta baliabide digitalen bidez jasotako informazioaren interpretazioa. |
| | **3. Hainbat lengoaia eta hizkuntza erabiliz, horietako bakoitzaren kodeak ezagutuz eta komunikazio-beharrei erantzuteko dituzten adierazpen-aukerak miatuz, mezuak modu eraginkorrean, pertsonalean eta sortzailean gauzatzea.** | 3.4. Sorkuntza plastikoak egitea hainbat material eta teknika erabiliz eta behar denean talde-lanean era aktiboan parte-hartzea. | **G. Hizkuntza eta adierazpen plastikoa eta bisuala**<br>- Adierazpen plastiko anitzak. Beste adierazpen artistiko batzuk. |

# Uraren bidaia



**HH. 3-6 urte** | **SAIOAK: Aurretik 2-3 / Ekoetxea 1 / Ondoren 2-3**

## Ikuspegi ekosoziala

| IKASKUNTZA EKOSOZIALA | EBALUAZIO IRIZPIDE EKOSOZIALAK | OINARRIZKO JAKINTZA EKOSOZIALAK |
|---|---|---|
| ✷ Giza ekodependentzia barneratzea. Bizitzaren sarearen parte garela ohartzea. | ✷ Izaki bizidunak funtzio garrantzitsu batzuekin erlazionatzea: landareek arnasten dugun oxigenoa sortzen dute, erleak ezinbestekoak dira jaten ditugun fruituak eta haziak sortzeko, etab.<br>✷ zaki bizidunei zer behar dugun adieraztea. | ✷ Ekomendetasun-adibideak: landareak eta arnasten dugun airea, landareak eta elikagaiak, ura, etab. |
| ✷ Biosfera gurtzea. Biodibertsitatearen eta ekosistemen garrantzia baloratzea. Natura gizakiek kontrolatu eta ustiatzeko existitzen dela dioen ideiaren ikuspegi kritikoa izatea. Antropozentrismotik ekozentrismora igarotzea. | ✷ Naturaren edertasuna ezagutzea.<br>✷ Izaki bizidunak zaintzeari balioa ematea (landareak, intsektuak, ornodunak, etab.). Ornogabeekiko jarrera positiboak erakustea. | ✷ Natura zaintzearen garrantzia.<br>✷ Naturarekiko lotura emozionala. |
| ✷ Bizi dugun zibilizazio-krisiaren egoera onartzea. | ✷ Natura zaintzearen garrantzia adieraztea.<br>✷ Giza ekintzak kalte egiten diola naturari adieraztea baina orokortu gabe giza ekintza oro kaltegarria dela. | ✷ Naturak edo sufritzen duten pertsonek jasandako narriaduraren aurreko emozioak.<br>✷ Ekintza indibidualaren eta kolektiboaren garrantzia |





**Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumaren konpetentzia esparruarekin lotura zuzena izateaz gain, dimentsio ekosoziala indartu nahi izan dugu gure ikas esperientzietan.** Horretarako, FUHEMek (Fundación Benéfico-Social Hogar del Empleado) proposatutako ikaskuntza ekosozialak ere sartu dira modu osagarrian. Begirada ekosozialaren integrazioan erreferentea da FUHEM.



U_10

# Uraren bidaia

| HH. 3-6 urte | SAIOAK: Aurretik 2-3 / Ekoetxea 1 / Ondoren 2-3 |
|---|---|



## Metodologia

| ESTRATEGIA | ESTRATEGIA EKOSOZIALAK | TEKNIKAK |
|---|---|---|
| Arazoetan oinarritutako ikaskuntza<br>Zereginetan oinarritutako ikaskuntza<br>Gogoetan oinarritutako ikaskuntza<br>Beste batzuk | Ikuspegi sozioafektiboa<br>Ekintzarako ikaskuntza<br>Ikaskuntza aktiboa | OHIKOAK:<br>Ikerkuntza taldeak<br>Solasaldia<br>Entzute kolektiboa<br>Azalpenak talde handietan<br>Beste batzuk<br><br>EZOHIKOAK:<br>Beste batzuk:<br>Interpretazio zentroa |

